



Usabalgo uholdeekin zerikusirik ez duela dio Jaurlaritzak

TOLOSA ▶ Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak dioenez, Araxesko kolektoreko lanek ez dute eraginik izan ezbeharrean

ERANTZUNA ▶ Iritzi publikoaren aurrean azalpena emateko nahian eta «eztabaida sortzeko asmorik gabe» egin ditu adierazpenok ▶ 2

VILLABONA ▶

Amodiozko Gutunen Lehiaketa, prest

Hilaren 28rako aurkeztu behar dira ▶ 4



N. URBIZU

Euskal Herriko Itzulia, eskualdetik

TOLOSALDEA ▶ Iñaki Isasi izan zen lehena eskualdeko gain guztiak zeharkatzen; Samuel Sanchezek irabazi zuen etapa, Seguran ▶ 5



TOLOSA-LEITZA ▶

VI. Literatur Astea ari dira egiten Tolosako Samaniego ikastetxean

Areso eta Leitzako ikasleek ekintzak egin dituzte Haur Literatur Egunaren harira ▶ 3,7



GUTUN@K ▶

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Eskubideak?
Zertarako,
urratuak badaude?

Ikasleok 9 eskubide ditugu, gaur egun urratuak ditugun 9 eskubide. Hizkuntza eskubidea, hezkuntza eskubidea, kultura eskubidea, hezkuntza prozesuan subjektu izateko eskubidea, hezkidetzak eskubidea, ikas baldintza duinetan ikasteko eskubidea, eskubide demokratikoa, Euskal Herrian ikasteko eskubidea eta kolektibo gisa jarduteko eskubidea. Euskal Herriko ikastetxe orotan urratua dugu hauek eskubideren bat edo beste, Tolosaldekoek barne.

Uneoro jasaten dugun zapalkuntza egoera honi amaiera eman nahian Ikasle Abertzaleak taldeko kideok txoko hau erabiltzearen apustua egin dugu, orain arte egin dugun lana isilpean geratu ohi zelako.

Orain arte! Baina oraingoan gure indar guztiekin aldarrikatu dugu *Garen izateko bidean... Ikasle eskubideak borrokatu*, jendea guk pairatzen dugun egoeraz eta gure existentziari ohar dadin.

Mezu hau zuzendaritzari helarazi nahi diogu. Jai egun arrotzak egitera behartuta baikaudede, baita testu liburu arrotzekin ikastera ere, historia kasu, ia Euskal Herriaren aipamenik egiten ez duen testu liburuekin gabiltza. Orixeko eta Lasko-raingo ikasleok, bestalde, ikastetxera joateko garraioaren beharrea gaudenez, 255 euro inguru utzi beharrea gara. Ikasle izateko garesti ordaintzen da!

XXI. mendearen sartuak gaude eta oraindik ikasleok Indioen parekotzat hartzen dugu gure burua!

Aski da! Zuzendaritzak jakin dezala ez garea besoak gurutzatuta geratuko eta datorren apirilaren 6an, 12:00etatik aurrera,

Ikasle Abertzaleak greba deialdia luzatzen diogula ikasle andanari. Oraindik ere 9 eskubide urratuak ditugulako, Garena izateko bidean... Ikasle eskubideak borrokatu!

ILAZKI ALDUNBERRI
ETA IMANOL ARTOLA ▶

TOLOSALDEKO IKASLE ABERTZALEAK

Tolosako Maxi
Eroskiri

Gutun hau Tolosako Maxi Eroskiri zuzentzen diot. Ni bezero naiz supermerkatu honetan. Iragan larunbatean nire bizitzako lotsa handiena igaro nuen bertan: lapurtzat hartu ninduten, eta ni ez naiz lapurra.

Martxoaren 24an Maxi Eroskiri egin nituen erosketak; Jainkoari eskerrak egun hartan kontua gorde nuen. Izan ere, aipatu egun hartan zapata batzuk erosi nituen. Bada, apirilaren 1ean Eroskiri sartu nintzen nire zapatekin ohi bezala

erosketak egitera: hara non nire ezustekoa, kutxazainak ez ziela aurrekoan aipatutako zapatei alarma kendu.

Kutxatik eginiko erosketak ordaintzera pasatu nintzenezan, kutxazainak lapurra banintz bezala tratatu ninduen. Umiliatu ninduen eta hankutsik birritan jarri ninduen, alarma jarrita zutelako. Kutxazainari esan nion kontua gordeta nuela. Harek hala bazen ekartzeko agindu zidan, sinetsiko ez banindu bezala. Kontua atera eta aurpegiaratu egin nion. Lotsa eman beharko lioke!

Harreran barkamena eskatu zidaten baina niri horrek ez dit balio: nik hainbeste jenderen aurrean igaro behar izan nuen lotsak eta umiliazioak ez dute barkamenik. Eroskikoei lotsa eman beharko lieke; izan ere, jende asko zegoen bertan, gertatzen zenari begira. Gaur egun burua tente-tente joan naiteke.

CONCHI BALTANAS ▶ TOLOSA

HEZKUNTZA ▶

Gaur, Hirukidek
bere eskaintza
aurkeztuko du

Hirukide Eskolapioetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleek gurasoentzako bilera egingo dute, gaur, ikastetxeko areto nagusian, 18:30ean. Bilera honetan Hirukidek Batxilergo eta zikloetarako duen eskaintzaren aurkezpene egingo dute; nahi duten guztiak bertaratu daitezke.

GIZARTEA ▶

Tolosako historiari
buruzko hitzaldia
bihar, HHIn

Tolosako Helduen Heziketa Iraunkorrak (HHI) herriko historiari buruzko hitzaldia antolatuko du. Bihar izango da, 16:00etatik aurrera, egoitzan (Igaralde kalea, 23). Hizlari lanetan Juan Agirre historiagile eta idazlea ariko da. Agirrek gaztelez eskainiko du solasaldia.

AZPIEGITURAK ▶

Usabalgo uholdeen
aurrean, «errugabe»
dela dio Jaurlearitzak

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren Araxesko kolektorea eraikitze lanak «zerikusirik» ez dutela esan du



Urez gainezka geratu zen, iragan martxoan, Usabalgo bigarren solairuko gela, uholdeak zirela eta. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Usabalgo kiroldegiak jasan zuen uholdea dela eta, Eusko Jaurlearitzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila Araxesko kolektorea eraikitze-

ko aurrera eramaten ari den lanei erreferentzia egin zitzaizen arazoaren nondik norakoak azaltzeko, aipatu uholdearekin loturaren bat zutela aipatuz. Lurralde-bulego honek, bere aldetik, hainbat puntu aipatu

nahi izan ditu, «zerikusirik ez» dutela argitzeko.

Batetik, Araxesko kolektoreko obren hasiera 2005. urtera aurreratu zela azaldu dute, «Tolosako Udalak horrela eskatuta», obra horien hasiera

2006ko amaieran aurreikusita bazegoen ere.

Bestetik, «lan hauek ez dute eraginik izan kiroldegiko apar-kalekuak jasandako uholdearekin, ez eta ondoren Usabalgo instalakuntzan izandako arazoekin ere», baieztatu du Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak.

Halaber, «fekalen ponpake-ta-estazioa kiroldegiko arduradunek ipini» zutela eman dute jakitera, «haren ustiapena eta mantenua euren eskumena izanik». Honekin batera, «kolektorearen lanen egikaritzan ez da inola ere ponpen manipulaziorik behar izan», gaineratu nahi izan dute.

«Ez dugu eztabaidarik nahi»

Arrazoi hauengatik guztiagatik Araxesko kolektorearen proiektuaren garapenerako Eusko Jaurlearitzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aurrera eraman dituen lanak ez direla izan kiroldegiko uholdearen arrazoiak ondorioztatu dute.

Lurralde-bulego honen nahia ez da «ezbehar honen inguruan eztabaida sortzea», baina beharrezkotzat jo dute «iritzi publikoaren aurrean azalpen hau ematea, aurrez aipatutako adierazpenek Eusko Jaurlearitzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila egiten ari den kolektoreko obrak adierazten baitzituzten gertatutakoaren arrazoi bezala».

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423
▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134
▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800
▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -
67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970
▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885

▶ Tolargi: 650016
▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ HEZKUNTZA

VI. Literatur Astea ari dira egiten egun hauetan Samaniego Ikastetxeakoak

Antolatutako ekitaldien artean, poesia emanaldia eskaini zuten atzo Orixe Institutuko ikasleek Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailako ikasleentzako



Orixe institutuko 5 eta 6. mailako ikasleei eskainitako poesia emanaldia, atzo. ESTI EZEIZA

ESTI EZEIZA

Igandean Haur Liburuaren Eguna izan zen eta, hori dela eta, Samaniego Ikastetxeako Literatur Astea antolatu dute egun hauetarako. Astelehenean hasi ziren, eta etzi arte iraungo dute jardunaldi hauek. Ikasturtean zehar irakurzaletasuna bultzatzeko egiten ari diren ekimenen bilgune dira saio hauek.

Urtean zehar, alde batetik, *Banbulo kanpaina* gauzatu dute. Honen barruan, ikasleek liburu bat irakurtzen duten bakoitzean, gometsa bat eranstean dute liburutegian dagoen Banbulo erraldoiean, eta fitxa bat betetzen dute. Hala, irakurritako liburu kopuruaren arabera, dominak banatzen dituzte. Bestetik, idazketa tailerra eta zehar idazleren bisita ere izan dute ikasturtean barna.

Hiru oinarri

Seigarren aldia da Samaniego-koek egitasmo hau antolatzen dutena. Aste honetako jardunaldiak hiru ekintzetan oinarritzen dira: batetik, Liburu Egunari buruzko marrazkien erakusketa pasiloetan eta libu-

regian. Bestetik, testu literarioei buruzko zenbait ekimen, horien artean, ipuin kontaketa, antzerkiak, eta olerki emanaldiak. Eta, azkenik, irakurketa maratonia egingo dute. Maratoni honetan, ordu laurdenero, ikasle edo guraso batek testu txo bat irakurriko du, eta hau megafonia bidez gainontzeko ikasgeletan ere entzun ahal izango da.

Egitaraun barne, Orixe Institutuko ikasleek eskainitako poesia emanaldia joan ziren atzo 5 eta 6. mailako ikasleek. Nahiz eta hasieran harreta jartzeko interes handiegirik ez zuten erakusten gaztetxoek, emanaldia hasi eta minutu gutxitarako hauen zentzumen guztiak saioan zentratu zeuden.

Erabiliko diren hizkuntzei dagokionez, «euskararen normalizaziaren aldeko apustua eginenez», ekintza gehienak euskara hutsean burutuko dituzte. Hala ere, biharko irakurketa maratonia ahalik eta hizkuntza gehien erabiltzen saiatuko dira. Horretarako, irakasle, guraso eta bestelako ezagun batzuk lagunduko dute. Maratoni honetan, besteak beste, entzun ahal izango dira: euskara, ingelesa, gaztelania, jola (Afrika

mendebaldeko hizkuntzetako bat), portugesa, alemaniera, italiara, braillea, zeinuen hizkuntza eta ukrainera.

Antolatzaileen esanetan, «ikasturtez ikasturte jende gehiago inplikatzeko ar delako oso pozik daude». Literatur Astea jadanik «ohitura» bihurtu omen da; horregatik, aurreko urteetako irakasle, gu-

ARRAKASTA

Partaidetza xumean datza; zati handiena normalean gauza horiek egiten ohituta ez daudenek osatzen dute

raso, eta zaintzaileez gain, sukaldari batzuk ere jardungo dira. Horrela, parte hartzen dutenei oroigarri berezi bat ematen diete, haien partaidetza eskertuz.

Musutruk

Ikastetxeak diotenez, «Literatur Aste honen arrakasta partaidetza xumean datza». Hau da, zenbaitetan kanpotik idazleak edo ipuin kontalari profesionalak etortzen badira ere, egitarauaren zatirik handiena normalean gauza horiek egiten ohituta ez dagoen jendeak betetzen du. Hau, boluntario moduan, «laguntzeko eta parte hartu nahi dutelako» egiten dute. Horren adibide dira ONCEtik braillez irakurtzera joaten den mutilak bere saioan islatzen duen ilusioa, eta etorrikin batek irakurketa maratonia besteen aurrean bere hizkuntzan irakurtzean adierazten duen harrotasuna.

GIZARTEA ▶

Eskualde mailako mobilizazio eguna gaur

Errepresioari, herri presioa lelopean mobilizazioetara deitu ditu gaurko ezker zberzaleak. «Olano, Petri eta Otegiaren kartzeleratze eta fiantzaren erraldoiekin erantzun asmoz, eta egoera hauek salatzen», eskualde mailako manifestazioa deitu dute biharko Tolosan, 20:00etan, Trianguloan. Bestetik, Ibarra, herri mailan egingo dituzte mobilizazioak. Ezker abertzalearen esanetan, «PNVekin egiten txostenei esker, kartzelan daude gazte hauek». Honela, egitasmo honekin, PSOEn gatazka errepresioez ez dela bideratzen adierazi nahi diote.

GIZARTEA ▶

Arantzazurako autobusen antolaketa

Elizbarrutiak autobusak antolatu ditu hilaren 8an, larunbatean, Arantzazura egingo den ibilaldirako. Antolaketa aurreko urteetan egin den bezala izango da. Bidaia txartelaren salneurria 11 eurotako izango da. Ondorengo egun hauetan, parrokiek kartel eta bus txartelaren inguruko informazioa bildu eta zabaltzeko dute. Hilaren 6an, 16:00etarako, Joxi Lasa Tolosaldeko Arzipresaltako arduradunari abisatu beharko diete ordezkariek, zenbat diren jakiteko. Antolatzaileek jasotako dirua, argi aipatuz nondik egiten den sarrera, Kutxako 21010152680006612022 kontuan sartu beharko dute.

KULTUR ESKAINTZA 2006

Apirilean kutzak babestu eta finantzaturiko Kultur Jarduerak

Eguna	Herria	Ekitaldia	Interpretatzaile	Lekua	Ondut.
Apir. 4a	Zizurkil	Magia - Eritz Magoa	Eritz Markas	Gurea Antzokian	16:15
Apir. 11	Ariostea	Antzerki - Ingarumena	Kultur Atzerri	Sasolan	11:30
Apir. 15a	Orreaga	Antzerki - Ingarumena	Kultur Atzerri	Urduloko Antzoki Nagusia	17:00
Apir. 21a	Abaltzokia	Eman eta Gero	Txobongilo Taldea	Kultur Etxean	17:00
Apir. 21a	Ibarra	Asto Bat Hipodromon	Gorriago	Benito Izagire Kultur Etxean	11:30
Apir. 23a	Lagorreta	Castervilleko Mamus	Txalo S.L.	Lagorretako Herri Zinemari	16:45
Apir. 26a	Altoa	Triditxia eta perkusio Bikotea	D. Goyenche - X. Arakana	Elizan	18:00

www.kutxa.net

kutxa

ZIZURKIL ▶

Aktore
bihurtuko dira
gaur Otaño
ikasleak

LH1ekoek 'Belea eta otsoa' ipuina moldatu dute; 15:30ean izango da, Atxulondon

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Antzerki Astean Pedro Mari Otaño ikasleak izango dira gaurkoan protagonista. LH1eko ikasleek, sei urtekoek, eskainiko dute antzezlan Atxulondo kultur etxean, 15:30etik aurrera. *Belea eta otsoa* ipuina moldatu dute, antzezlan bihurtuz.

Ikasle guztiak hartu dute parte, bai idazterakoan, bai dekoratuak egiterakoan, bai jantziak egiterakoan. Hiruhilabete honetan burututako lana izan da gaur Atxulondon taularatuko dutena. Otaño eskolakoek gonbita luzatu dute antzezlan ikustera joateko.

ASTEASU ▶

Patinaia
ginkana
egingo dute
gaur frontoian

ERREDAKZIOA

Asteasuko Kirol Astearen bigarren ekitaldia burutuko da gaurkoan. Patinaia atsegin duten haur eta gaztetxoek aukera izango dute beren abilezia erakusteko frontoian egingo den ginkanan. 17:00etan hasiko da proba. Iaz sortu zuen ikusmin bera lortzea espero dute antolatuak.

VILLABONA ▶ LITERATURA

Amodiozko Gutunen
Lehiaketa antolatu du
beste behin Udalak

Hamasei urtetik gorakoek aurkez ditzateke lanak, hilaren 28a baino lehen; lau sari emango dituzte guztira

ERREDAKZIOA

Villabonako Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu du Udalak. Iaz ez zen egin, eta aurre berreskuratu egin dute amodiozko gutunen eta eskutitzen idazkera sustatzeko eta saritzeko asmoa duen lehiaketa. 16 urtetik gorakoek har dezakete parte, hau da, 1990. urtea baino lehen jaiotakoak. Euskaraz idatzitako lanak hartuko dituzte soilik, eta idatzi guztiak argitaratu gabeak eta saritu gabeak beharko dute izan. Hilaren 28a baino lehen aurkeztu behar dituzte parte-hartzaileek beren lanak.

Idazlanek gutun itxura eduki behar dute DIN A4 tamainako orrietan, eta eskuz edota ordenagailuz idatzita aurkez daitezke. Luzerari dagokionez, gehiezin bi orrialdeko lanak izan beharko dute.

Horrelako lehiaketan ohikoa denez, idazlanean ez da egilearen daturik jarriko, leloa soilik jarri beharko zaio. Egilearen datuak (izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren leloa) kartazal itxi batean sartu beharko dituzte parte-hartzaileek. Kartazalaren gainaldean jarri behar da lanak daraman lelo bera. Villabonako parte-hartzaileek herriaren izena jarri behar dute kartazalean leloarekin batera.

Idazle gaztearen saria

Lau sari banatuko dira guztira Amodiozko Gutunen lehiaketan: irabazlea eta bigarrena,



Azken irabazleak, Aina Muñozek, bere gutuna irakurtzen. G. AZKUE

SARIAK ▶

Irabazlearentzat saria. 300 euro eta lore bat.

Bigarren saria. 200 euro eta lore bat.

Amasar edo billabonatar onenari saria. 175 euro eta lore bat.

Idazle gaztearen saria. 125 euro eta lore bat.

amasar edo billabonatar onenari saria eta idazle gaztearen saria. Azken hau berrikuntza da orain bi urte egin zen lehiaketarekin alderatuz. Maila ho-

rretan parte har dezakete 1981. urtean eta ondoren jaiotakoek. Maila horretan parte hartu nahi dutenek kartazal txikian honela adierazi beharko dute: Idazle gaztearen saria.

Lanak eta egilearen datuak dituen kartazala beste kartazal handiago baten sartuta, honako helbide honetara bidaliko da: Villabonako Udala, Euskara Zerbitzua, Erreboteko Plaza z/g, Villabona 20150. Lehiaketako epaimahaia literatura eta kultura munduko pertsona adituek osatuko dute, eta sari banaketa ekitaldia ekainaren 15ean izango da.

ANOETA ▶

Pazko Asterako
ludoteka antolatu
du Udalak

Anoetako Udalak Pazko Asterako ludoteka antolatu du. Hilaren 18tik 21era izango da, 11:00etatik 13:00etara, Ikastolan. HH1etik DBH4ra artekoek har dezakete parte eta, 6 euroko kostua izango du. Izen-ematea udaletxean egin behar da, hilaren 7a arte. Bestalde, begiraleak behar ditu Udalak ludoteka horretarako. 18 urtetik gora izan behar dute. Hautaketa egiterakoan kontuan hartuko da aisialdiko begirale titulua izatea, anoetarra izatea eta haur eta gazteen aisialdian eskarmentua izatea. Izen-ematea ere hilaren 7a arte izango da.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita
jasoko dute
KZgunean bihar

Anoetako KZgunean tutorearen bisita jasoko dute bihar, 09:00etatik 13:00etara. Ohi bezala, mintegi bat emango du, 10:00etatik 12:00etara. Flashget programa emango du, hau da, Internet bidez artxiboaren deskarga guztiak gestionatzeko balio duena. Parte hartzeko interesa dueneak hara agertu besterik ez du.

ADUNA-ASTEASU ▶

Herri batzarrera
deitu dituzte gaur
herritarrak

Herri batzarra burutuko dute gaur Adunan eta Asteasun, Agenda 21 prozesuaren baitan. 20:00etan ekingo diote bilerari Adunan, Kultur aretoan; eta 19:30ean Asteasun, udaletxean. Herritar guztiak dei egiten diete.

iragarki laburrak ▶



Alkiza. Familia bakarreko txaleta salgai. 4.000 m2 dituen lursailarekin. 120 m2 dituzten 3 solairu.

Alkiza. Berrikuntza behar duen baserria salgai. Informazio pertsonala.

Andoain. Santa Kruz auzoan, 80 m2 dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Ilogailuarekin.

Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex etxebizitza

estreinatzeko, lau logela, bi komuna, egongela, sukalde eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Belauntza. Bi familietzako etxea salgai, bi solairu, 270 m2-ko lursaila.

Berastegi. Familia bakarreko txaleta salgai. 3.500 m2-ko lursailarekin.

Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m2-ko lursailarekin.

Ibarra. Berrituriko etxebizitza behoko solairuan, 30 m2 dituen bulegoarekin. Ezinhobea ezinduentzat.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m2-ko etxebizitza. Egoera ezinhobean. Garajea aukeran.

Tolosa. Santa Klaran, 90 m2 dituen etxebizitza salgai.

Tolosa. Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukalde terrazarekin, bainugela eta komun, garaje itxia.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m2 erabilgarri.

Tolosa. Belaten, trasteleku berriak salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai.

Guztia erakusleihu.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Izkina egiten duen 45 m2-ko lokal ederra salgai.

TXIRRINDULARITZA ▶

NEREA URBIZU

Eskualdetik pasatu zen atzo Euskal Herriko Itzulia. Irundik hasi eta Seguraraino joan behar izan zuten txirrindulariek atzoko etapan, 155 kilometro egin ostean.

Tolosaldea zeharkatu egin zuten, lehenik Villabona, Irura, Anoeta, Tolosa eta Ibarra igaroz eta Leaburura igoz. Ondoren, Tolosako Amaro zuzotik Altzora, Alegia eta Amezketatik Abaltzisketara igo ziren, handik Goerrira barna sartzeko, Larraitzik igaro ondoren.

Orotara, 12 gain egin zituzten 175 txirrindulariek, eta horietako 11 azkeneko 100 kilometroetan zeuden. Gogor samarra izan zen atzoko etapa, beraz, espero zuten bezala.

Lasterketaren ia hasieratik sei lagun ibili ziren aurrealdean, baina Larraitz ondoren Telecom taldeko Le Boulanger, Iñaki Isasi (Euskaltel), Jose Luis Arrieta (AG2R), Dupond (AG2R) eta Israel Nuñez (Kaiuku) geratu ziren. Langileenak Arrieta eta Dupond izan ziren ia igoera guztietan.

Kolore ezberdinetako mailotak hasi ziren ikusten tropelaren buruan, helmugarako 14 kilometro falta zirenean. Ez zen bukaerako kilometroak iritsi arte argi egon irabazlea.

Tropelan ez zen sakabana-ketarik egon momentu batzuetan, eta hor hasi zen etapa zaputz egin zuena, herenegun goa bezalakoa. Baina bukaerako kilometroak iritsi ziren, eta metro interesgarriak eskaini zituzten, ez baitzegoen argi norentzat izango zen garaipena.

Azken 10 kilometroak

10 kilometro falta zirenean Liberty taldeko bi txirrindulari aurreratu ziren: Alberto Contador eta Aitor Osa euskalduna. Errelebotan hasi ziren lanean biak, Cofidis taldeko Bertagnoli hurbildu zen bitartean. Azken gainean zeuden orduan hirurak. Zerainera iristerako, tropelak ihes egindakoak harripatu zituten. Dena den, teatea handitzea lortu zuten berriz ere ihes egin zutenek, eta 15 segundoko alde ateraz zieten tropeleko txirrindulariei.

Bitarte horretan Samuel Sanchez Euskaltel taldekoa tropel buruan zebilen, eta Zerain herrira berriro iristerako, atzoko etapan irabazle izango zen txirrindularia aurrealdean zebilen. Ordurako argi zegoen karrera sprint-ean bukatuko zela.

2 kilometro falta zirenean 17 zeuden buruan, eta garaipena lehenengo bien artean zegoen: Contador eta Sanchezen artean, alegia. Haizea haien alde

Eskualdetik ere pasatu da Euskal Herriko Itzulia

Euskaltel-Euskadiko Iñaki Isasi Tolosaldeko gain guztiak zeharkatzen lehena izan bazen ere, Samuel Sanchez taldekideak lortu zuen garaipena Seguran



Eskualdean ihes egindako taldean Arrieta eta Isasi zeuden. Handik bi minutuetara Leaburuko jaitziera tropelak egin zuten. I.TERRADILLOS



Tolosako kaleetan tropela asko zabaldu zen. N. LATABURU



Dupont-ek mendiko saria lortu zuen. Abaltzisketan ihesi zihoan. n. u.

izan zuten sprintean, Segurako herrian egin beharrekoa. Sanchez izan zen helmuga lehena zeharkatzen eta Contador bigarren.

Garaipen garrantzitsua izan zen Euskaltel taldearentzat, Euskal Herriko itzulian itxaropenak honela pizten direlarik.

iragarki laburrak ▶

LANA
Tabernaria. Neska bat behar da igandetan tabernan lana egiteko. 943 65 20 24 telefonora deitu 12:30etik aurrera.

Tolosaldea 2006-7
telefono listin berria,
Telefonica eta Euskaltekin eguneratua,
Tolosaldeako etxe guztietan egongo da hurrengo uztailean.

GUTUN@K ▶

Adiorik ez,
egun berrirarte
baizik!

Kaixo guztioi!

Ezertan hasi aitzin jaso ezazue nire agurrik sutsu eta sentikorrena Euskal Errepresialiatu Politikoon senide eta lagunak.

Bizitzen ari garenekin une latz hauen inguruan, hitz guztiak soberan daudelakoan nago eta, ondorioz, oraingoan, sentipenak sutan ditudan honetan, ipuintxo bat zuei kontatzerara adoretuko naiz.

Bazen behin, Ibardineko magalean, neskatila eder eta alai bat non bere eguneroko eginbeharra abelburuak larrera eraman eta hauek zaintzea zen. Goiz euritsu batetan ordea, neskatila negar zotinka zegoen, eta han non agertzen zaien Guardia Zibila, hortzetaraino armaturik, berarengana hurbiltzen zaien bitartean. Neskatilak, negar zotinka oraindik, ondoko ibarrera igarotzen uzteko eskatzen dio, ardi bat galdu duela eta bilatzera joan beharra daukala, abelburuak baitira beraien biziturri xume ate bakarra.

Guardia Zibilak erraten dio muga hortxe dagoela eta legeek uko egiten diotela besterik gabe alboko herrialdera igarotzea. Nortasun agiriak, eskatzen dizkio, baina neskatilak ez dauka berarekin... Neskatilak, triste baina jada negarrik egin gabe, erantzuten dio aipaturiko legeak Madrilek ezartzen dituela, eta ez dakitela deus, ez bere ardiez ez eta herri honen, Euskal Herriaren, ezagutzaz. Ondoko ibarrean dagoen herrixka, hor beheraxeago aurkitzen den bere herrixka bezelakoa dela, eta bertako biztanleek ere euskaraz mintzatzen direla, non beraien ama hizkuntza den...

Neskatila ez dago negar zotinka, kementsu dago, duintasun osoz! Zapalkuntza ororen gainetik... Ta segi aurrera!

Igor, Roberto, borrokaren zilbor hesteak elkartu gintuelarik, adiorik ez eta gure analarrebak irlandarrek dioten moduan: *tioc fa dhar la!*

HAIMAR ALTUNA IJURKO ▶ LIZARTZA
(FRANTZIAKO MEAUX-EKO ESPETXETIK)

▶ **TOLOSALDEKO
HITZA.INFO**

Eztabaida. ETArekin su-etan iraukorra dela-eta bako prozesua gertuago ikusten al duzu? Zer aldatuko da?

IBARRA ▶ KULTURA

Euskal doinu eta erritmoak barreiatuz

Bartzelonan emanaldia eskaini du asteburuan Alurr dantza taldeak

IÑIGO TERRADILLOS

Alurr dantza taldeak emanaldia eskaini berri du Bartzelonan. Hain zuzen ere, auzo bateko jaiak zirela kontuan hartuta, Kabun musika talde bartzelonarrak gonbidatu zituen ibartarrak. Izan ere, Alurr-ekoek udan, San Bartolome jaietarako gonbidatu zuten Bartzelonako taldea, eta orain eskertze aldera, Ibarra taldea izan da han saioa eskaintzeko aukera izan duena.

Larunbatean, musika taldeko arduradunekin bazkaria egin zuten, eta Euskal Etxea ezagutzeko aukera ere izan zuten. Bazkariaren ostean, berriz, Bartzelona bisitatu zuten dantza taldekoek. Gauean, afari-txoa egin eta festarako tartea izan zuten. Hurrengo egunean ordubeteko saioa eskaini zuten Alurr-eko helduen bi taldek. Auzoko arduradunak aurkeztu zuen Ibarra taldea, eta saioaren amaieran opariak banatu zizkien dantzariak.

Ibarra dantzari eta musikariek batera, Lapurdiko lagunak aritu ziren emanaldian; guztiek elkarrekin entseatzeko ostirala baino ez zutela izan kontuan izanda «ezin hobeto» irten zela saioa azaldu dute ordezkariek. Eta ikusleen erantzuna ere maila berekoa izan zela gehitu dute, txalo zaparrada handiak jaso baitzituzten;

«jendeari gure dantzak gustatu zitzaizkiola nabaritu zen». Bestalde, «bartzelonarrak herri txiki batek horrelako dantza talde bat izateak», gehitu dute, eta «hori guretzat oso pozgarria da».

Kultur trukaketa

Alurr dantza taldeko ordezkariek eskerrak eman nahi dizkie emanaldietan aritu diren dantzariak, musikariek, eta parte hartu duten guztiei, eta baita Ardi Latxa Kultur Elkartekoei ere, eranskailuak eman baitzizkien Bartzelonako artean banatzeko, eta oso harrera ona izan zuten. Halaber, esker bereziak eman nahi izan dizkiete Kabun perkusio taldeari eta Bartzelonako Euskal Etxeari gonbitagatik eta emanaldietan harreragatik.

Bestalde, asteburuan izandako esperientzia kontuan hartuta, aurrera begira gisa honetako ekimenak antolatze-ko asmoa du Alurr-ek. «Bate-tik, gure herrian finkatu nahi dugu, eta bestetik kanpoaldera zabaldu; kultur trukaketa egitea da gure helburua, modu horretan, dantza ezetik, Euskal Herriko eta, batez ere, gure herriko gastronomia, musika eta historia ikusi eta ezagutu ahal-ko baitute bisitatzen ditugun lurraldeetako biztanleek».



Dantza tradizionalak nahiz berriagoak eskaini zituzten. HITZA



Ibarra eta Lapurdiko musikariak aritu ziren. HITZA



Iragan asteburuan Bartzelonan izan ziren musikari eta dantzari euskaldunak. HITZA

HEZKUNTZA ▶

'Printzesa eta ilarra' ipuinari jarraipena eman diote hemen ere

Ipuin egile bilakatu dira Aresoko eta Leitzako eskoletako ikasleak eta erakusketa jarrita dute liburutegian



Ana Meabe ipuin-kontalaria —eskuinean— etorri zen Leitzako eta Aresoko ikasleengana. J. L. HUARTE

JAIONE ASTIBIA

Haur Literatur Eguna igandean zelarrik, aurtengo ediziorako Hans Christian Andersen *Printzesa eta ilarra* ipuina aukeratu zuten Euskal Herri osoan, aldiberean egitekoak zituzten ekitaldietarako ezaugarritzat. Hala, Aresoko eta Leitzako eskoletako ikasleek ipuin horri jarraipena eman zioten eta proposamen guztiekin erakusketa jarri.

Hori herenegun eguerdian egin zuten, bi herrietako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen eta Leitzako liburutegiaren lankidetzaren ondorioz.

Ipuinak dionez, «Erreinu bateko errege-erreginek printzesa ezkonduarazi nahi zuten, derriro printzesa zen neskatxaren batekin. Berak maite zuen neskatxarekin ezkontzea lortu zuen, haren printzesa izaera frogatu zutenean: oheko oholtza gainean ilar ale bat jarri, se-



Ipuinaren jarraipenekin erakusketa egin zuten liburutegian. J. ASTIBIA

kulako koltxoi pilaren azpian eta lo han egiteko eskatu. Hurrengo goizean gorputz guztia minbeheratuta zuela jaiki izanagatik printzesatzat hartu zuten». Bada, ipuin honi jarraipena eman zieten haurrek. Bartzuk marrazki hutsez, besteek kontaketa landuekin: «ume asko izan zituzten»; eztei bidairna joandakoan, sekulako aben-

turak izatea... Proposamen guztiak erakusgai daude liburutegian.

Haur Literaturaren Eguna osatzeko, Ana Meabe ipuin-kontalaria etorri zen, bere bidaiari-maleta bete konturekin. Honek irudikatu, kontatu eta osatutako istorio irudimentsua haren imintzioei erreparatuz.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Jantokiko monitoreak prestatzeko ikastaroak

Heziketa ikuspegia lantzeko xedea dute; izena emateko epea etzi bukatuko da

J. ASTIBIA

«Eskola-jantokietako begiraleen formakuntza ikastaroak» egitekoak direla jakinarazi dute Erletatik berriki.

Iruñean, Saioa aisialdiko hezitzaileen eskolan egitekoak dituzte ikastaro hauek, igorritako informazioan iragarritzen denez. Eskoletako jantokietan begirale lanetan aritzean, «hezkuntzako ikuspuntua kontutan hartzea» garrantziko deritzote; ondorioz, «arlo psikopedagogikoa eta jantokiaren antolakuntza, elikadurari eta garbitasunari buruzko jakintzak, jolaserako aukerak» moduko gaiak lantzekoak dituzte, hil honen 18tik 28ra, 30 ordu iraupeneko ikastaroan.

Honekin, «jada lan horretan ari diren lagunak, edo hezitzaile direnak, edo interesa



Jantokian ere heziz. J. A.

duen oro, jantokietan egiten den hezkuntza ez-formalaz oharteratzea eta horretarako baliabideak eskaintzea» omen dute helburu.

Izena ostiralerako eman behar dute interesatuek Saioa eskolan, matrikula 90 eurokoa deiarik; 948 21 29 54 da hango telefono zenbakia.

ARESO ▶ AISIA

Gaur berriro ludotekako saioa izanen dute

Eskolako gimnastika gelan elkartuko dira herriko haurrak, arratsalde pasa

J. ASTIBIA

Astelehenean zuten ludotekaren aurreneko eguna Aresoko umeek. Astea osatzeko gaur dute hurrengoa: herenegun bezala, 17:00etan elkartuko dira Aresoko eskolako gimnastika aretoan, hantxe presatatu baitute aisialdirako gunea herriko umeentzat.

Euskara Zerbitzutik aditerra eman zuteneguz, hemen ere ludotekaria Leitzako bera dute, Ainhoa Antzizar, Dindaia fundazioko langilea, hain justu bi herrietako ludotekaren gestioa daraman elkartekoa. Umeak beraren zaintzan ibiliko dira, plastikaren txokoan, jolasen txokoan, nahiz antzerkiaren txokoan.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

urteurrena ▶

II. urteurrena
Jabier Arratibel Aranburu
(2004ko apirilaren 4a)



Ez zaitugu inoiz ahaztuko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko
Etxekoak
BEASAIN, 2006ko apirilaren 5a

hilberria ▶



Maria Etxeberria Azpiroz
(Juan Mari Dorronsoro zinegotziaren ama)



Belauntzako Udala

BELAUNTZA, 2006ko apirilaren 5a



AGENDA

DEIALDIAK

Aduna-Asteasu. Udaltalde 21 Ernioaldea parte-hartze prozesuaren barruan, herri batzarrak diagnostikoaren ondorioak eta helburuak aztertzeak. Adunan, 20:00etan, Kultur aretoan; Asteasun, 19:30ean, udaletxean.

Asteasu. Patinaia proba. 17:00etan, frontoian. Kirol Astearen barruan. Gainera, Kirol Astea denez, gimnasioa doan erabiltzeko aukera izango da, 18:00etatik 19:00etara. Kirol teknikaria bertan izango da erabiltzaileei beharrezko aholkuak eta informazioa emateko.

Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkarrekin irteera antolatuta du larunbatean Irantzuko monastegia eta Lizarra bisitatuz. Bazkalondoren dantzaldia eta bingoa izango dira. Izen-ematea, elkartean: 28 euro bazkideek eta 30 gainontzekoek.

Leizaldea. Arkupeak jubilatutako elkarrekin oporraldiak antolatuta ditu Benidorm-en, maiatzaren 10etik 24ra, 460 eurotan. Izen-ematea, elkartean.

Tolosa. Literatur Astea Samaniegon: gaur ikasleek ipuinak irakurriko dituzte.

Tolosa. 7-13 urte bitartekoentzako udalekuei buruzko informazioa eta izen-ematea, hilaren 7a arte, Kultur Etxean.

Tolosa. Hilaren 23tik 29ra Galiziara, Rias Baixasera, irteera antolatuta du Harizpe jubilatutako elkarrekin. Bazkideek 195 euro ordaindu behar dituzte, eta 201 gainontzekoek. Izen-ematea egoitzan (Emeterio Arrese) edo 943 65 49 15ean.

Tolosaldea. Fedea sendotu eta bakea eskatu lelopean, Arantzazura ibilaldia izango da hilaren 8an, larunbata. Eskualdetik hara joateko autobusak antolatuta dituzte. Izena eman nahi duenak Tolosaldeko parrokiatar jo behar du.

Zizurkil. Pedro Mari Otaño ikasleen antzerki emanaldia. 15:30ean, Abulondo kultur etxean. Antzerki Astearen barruan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez

Zulueta koadroak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan. **Tolosa.** Poesia movil Enrique Zalduaren pinturak. Hilaren 22ra arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

HITZALDIAK

Tolosa. Santa Maria parrokiaren Garizumako hitzaldiak, euskaraz. Emilio Sotomayor eskolapioa izango da hizlaria bi hitzordutan: 16:30ean eta 20:00etan. **Tolosa.** Batxilergoko eta

Heziketa Zikloetako eskaintzaren aurkezpena. 18:30ean, Hirukide Eskolapioak ikastetxean. **Tolosa.** Tolosako historiari buruzko hitzaldia eskainiko du Juan Agirre historiagile eta idazleak. Bihar, 16:00etan, Helduen Heziketa Iraunkorrean (Igaralde auzoa). **Tolosa.** DBHko 4. mailako ikasleen gurasoentzako bilera, Batxilergoari eta Heziketa Zikloi buruzko informazioa emateko. Bihar, 19:00etan, Orixen.

ZINE-KLUBA

Alegia. Txema de la Peña zuzendariaren *Sud Express* filma. 21:30ean, Gaztetxean. **Tolosa.** Yoji Yamada zuzendariaren *El ocaso del samurai* filma. 21:30ean, Kultur Etxean. Sarrera, 2 euro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Irauli uhinak*, Gaztearekin prestatzen duen saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
21:00-22:30. *Bide okerretik*, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.
► HITZA-K ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK



URTE ASKOAN

Aupa, Minde!
Garaipena geurea da, eutsi goiari!!! Zorionak eta hurrengo geurekin!
Ibarrara Herri Ekimena.



URTE ASKOAN

Ion Mindegia (Ibarra).
Gaur 27 urte. Jarrai ezazu horrelako jator eta alai!
Familia guztiaren partetik.



ZORIONAK, KAXKAMOTXI!

Hau
aurrera zia!



URTE ASKOAN

Ander Iraeta (Bidegoian).
Gaur urtebete. Zorionak
familiarren partetik.



URTE ASKOAN

Asier Ugartemendia Urbietia (Alkiza).
Gaur 6 urte. Zorionak eta muxuak aita,
ama eta Gorkaren partetik.

**Mesedez,
ekarri argazkia
bi egun
lehenago.
Mila esker.**

hitza
agurren
tarte

**Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...**